# ¡IRAKURRI, ETA ONDO PASA!




**LIBURUA**

## ‘Maite nauzu oraindik?’

Martin hartz txikiak zalantza du amak beti maiteko ote duen. Amaren betiko maitasuna izango duen edo ez ziurtatzeko, galdera ugari egiten dizkio, bata bestearen jarraian. Amak galdera guztiei zintzo erantzungo die, eta Martin lasai geratuko da, amaren maitasuna betiko izango duela jakinda. Maitasunaren inguruko istorio hunkigarria kontatzen da liburuan. Zer da, baina, maitasuna? Zer da gauza ikusezin hori?

**Catherine Leblanc**
**Eve Tharlet**
Argitaletxea: **Ttarttalo**




**LIBURUA**

## ‘Ipurtargien festa’

Gau izartsu batean, Markos eta aita paseo eder bat ematera irten dira etxe inguruan. Belarretan gordeta, argi txiki eta misteriotsu batzuk aurkituko dituzte, liluraz eta poesiaz betetako mundura eramango dituzten argi misteriotsuak. Ipurtargien ezkutuko mundua ezagutuko dute txango horretan. Zubeldiak eta Jalonek elkarrekin egindako album ilustratua da.

**Iñaki Zubeldia**
**Estibalitz Jalon**
Argitaletxea: **Denonartean**

**DENBORA-PASAK**

## 1. Munduari bira

Motorzale amorratua da Fermin. Hiru moto gidari ezagunen argazkiak bidali dizkigu. **Ezagutzen al dituzu?**



## 2. Hitzak atzekoz aurrera

Hitzak atzekoz aurrera idaztea uste baino zailagoa da. **Nola idatziko zenituzke ezkerreko hitz horiek?**

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | arazo | A | oizaredom |
| 2 | moderazio | B | aztizib |
| 3 | administrazio | C | nusatosore |
| 4 | tekniko | D | ozara |
| 5 | bizitza | E | oizartsinimda |
| 6 | erosotasun | F | okinket |

**Erantzunak**

**1.-** Jorge Lorenzo, Valentino Rossi eta Dani Pedrosa.
**2.-** 1-d, 2-a, 3-e, 4-f, 5-b eta 6-c.